

GABRIEL ARESTI, 1963

NIRE AITAREN ETXEA	LA CASA DE MI PADRE
<p>Nire aitaren etxea defendituko dut. Otsoen kontra, sikatearen kontra, lukurreiaren kontra, justiziaren kontra, defenditu egingen dut nire aitaren etxea.</p> <p>Galduko ditut aziendak, soloak, pinudiak; galduko ditut korrituak, errenteak, interesak, baina nire aitaren etxea defendituko dut.</p> <p>Harmak kenduko dizkirate, eta eskuarekin defendituko dut nire aitaren etxea; eskuak ebakiko dizkirate, eta besoarekin defendituko dut nire aitaren etxea; besorik gabe, sorbaldik gabe, bularrik gabe utziko naute, eta arimarekin defendituko dut nire aitaren etxea.</p> <p>Ni hilen naiz, nire arima galduko da, nire askazia galduko da, baina nire aitaren etxeak iraunen du zutik.</p> <p>De Harri eta Herri, 1963</p>	<p>Defenderé la casa de mi padre. Contra los lobos, contra la sequía, contra la usura, contra la justicia, defenderé la casa de mi padre.</p> <p>Perderé los ganados, los huertos, los pinares; perderé los intereses, las rentas, los dividendos, pero defenderé la casa de mi padre.</p> <p>Me quitarán las armas y con las manos defenderé la casa de mi padre; me cortarán las manos y con los brazos defenderé la casa de mi padre; me dejarán sin brazos, sin hombros y sin pechos, y con el alma defenderé la casa de mi padre.</p> <p>Me moriré, se perderá mi alma, se perderá mi prole, pero la casa de mi padre seguirá en pie.</p> <p>De Piedra y pueblo, 1963</p>

